

# **NAFARROAKO TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA**

**(Oinarri Teknikoak, maila guztietarako)**

## **Egunak:**

2024ko urriaren 19an eta 26an eta azaroaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean.

## **Tokiak:**

Talde bakoitzaren lokalak izanen dira. Neurketa bakoitza etxeko taldearen lokalean jokatuko da. Azkeneko txanda Iruñean izateko saiakera egingen da, aurrerago zehaztuko den lokalean. NXFren webgunean argitaratuko da eta posta elektronikoz taldeei jakinaraziko zaie.

## **Izen ematea:**

Federazioaren posta elektronikuan egingen dira taldeen inskripzioak. 2024ko urriaren 9ra arteko epea dago. Asteazkena da.

Urriaren 15eko 12:00ak arte izanen da epea indar zerrendak aurkezteko (“Federatuen Txokoa”-ren bidez”). Indar zerrenda bakarra aurkezteko epe bera dago, baina posta elektronikoz bidali behar zaio Federazioari. Epe barruan, behar den eran, klub batek aurrekoa ez balu egingen, inskripzioan % 50eko gainordaina izanen du.

Kudeaketa tasa Nafarroako Xake Federazioan ordaindu behar da hirugarren txanda baino lehen (2024ko azaroaren 2an da). Bestela, taldeak kanporatuak izan daitezke.

Ordainketa Federazioaren kontuetan egin daiteke:

- Sabadell Bankua: ES04 0081 4363 09 0001031904.
- La Caixa: ES07 2100 3693 22 2200027214.

## **Torneoaren Oinarriak:**

Indarrean dauden FIDEn arauak zuzenduko dute. Parte hartzaile guztiak horren menpe geratzen dira txapelketan zehar.

Maila bakoitzeko Oinarrietan argitaratuko da aurreikusitako programazioa.

## **Neurketen tokia, eguna edo ordua aldatzea:**

Horrelako aldaketarako baimena eman dezake Torneoko zuzendariak, indar handiko arrazoa baldin badago.

## **Klubeekiko, taldeekiko eta kapitainekiko harremanak:**

Nafarroako Xake Federakundearen webgunearen bidez: “<http://www.fnajedrez.com>”. Baita ere posta elektronikoz (“[info@fnajedrez.com](mailto:info@fnajedrez.com)”). Edo berehalako mezularitza baten

aplikazioaren bidez. Horretarako, klubek posta elektronikoren helbide bat eman behar dute (nahi badute klubeko talde bakoitzak eman dezake).

Paperaren bidez ere bai (Nafarroako Xake Federakundearen egoitzan), taldeak posta elektronikorik ez badu. Nafarroako Xake Federazioaren webgunean argitaratutako informazioek jakinarazpen balioa daukate.

### **Ez agertzea:**

Partidara azaltzeko denbora ordu erdikoa da, programatutako hasierako ordutik. Denbora hori igarota, ez aurkeztutzat hartuko da jokalaria. 26. artikulua aplikatuko da kasu horretan.

Arrazoirik gabe ez agertzeak taldearen kanporaketa eraginen du. Txapelketa honetan bere jokalariek beste talde batean jokatzetik ez dute izanen. Talde horretara noizbait igo diren jokalariai salbuespena dira, talde horretakoak bihurtu ez badira.

Talde bat kanporatua bada, bere emaitzak kontuan hartzen diren edo ez, Torneoko zuzendariak erabakiko du.

### **Jokalarien zerrenda:**

Inskripzio epean Federazioari adierazi behar zaizkio: Jokalarien ordenaren zerrendak, klub bakoitzeko zerrenda bateratua, jokatzeko egoitzak eta kapitainaren izenak.

Jokalariai FIDE eloaren arabera jarriko dira. Orden hori alda daiteke, 50 puntuko tartea gainditu gabe.

Klub bateko jokalariai guztiak zerrenda bakarrean jarriko dira, jokalarien ordenaren arauen arabera, bakoitza zein taldekoa den adierazita.

Nafarroako Selektzioan jokatzeko gai ez diren jokalariai: 6 edo 4 mahaitan jokatzeko bada ezin dira bi baino gehiago izan. Txapelketen Araudi Orokorrean arautzen da Nafarroako Selektzioa.

Jokalariai gehiago sar daitezke behin Txapelketa hasita, lau txanda jokatu ez badira. Jokalariai berriak jokatu ahal izateko aurreko asteleheneko 14 orduak baino lehen fitxatua izan behar du. Nafarroako Xake Federazioaren webgunean agertuko dira jokalariai berriak eta euren mailako taldeetako kapitainei jakinaraziko zaie. Inskripzioaren epea igaro ondoren, jokalariai berria sartuz gero, honek ezin izanen du lehenengo txandan jokatu.

Inskripzio epea amaitu ondoren, jokalariai berriak bere rating-aren arabera jarriko dira, eta, elorik ez badute, azken tokian.

Neurketa batean gehienez 3 jokalariai igo daitezke. Laugarrena ere bai, 18 urtez azpiko mailakoa bada eta FIDE eloko 2.000 puntu baino gehiago ez badu.

Goiko mailan bi aldiz jokatzuz gero, beheko taldera ezin da jaitsi. Arau hori ez da aplikatuko 16 urtez azpiko jokalariaiekin, FIDE eloko (edo FIDERik ez badu, FEDA eloko) 1.600 puntu baino gehiago ez badu.

Txanda bakoitzean, talde batekin bakarrik joka daiteke (bestela, jokalarien ez legezko zerrendatzat hartuko da). Neurketaren bat atzeratzen bada, arau honek berdin balio du. Goragoko mailan klubak bi talde baldin baditu, igotzen diren jokalariai bakarrik talde batean joka dezakete. Goragoko mailetan taldeak baldin baditu klubak, jokalariai batek joka dezake

goragoko mailetan dauden talde batean baino gehiagotan, beti ere maila ezberdinekoak baldin badira.

Zerrenda ez legezkoa baldin bada, gaizki jarritako jokalarien partidak galduko ditu taldeak eta aurkariak irabaziko ditu. Taldeak partidako puntu bateko zigorra izanen du. Hala ere, partida guztiek balio izanen dute elorako.

### **Kapitainaren lana:**

Taldeko kapitainak, FIDEn Handbook-en C.10ari jarraituta, EZ du eskubiderik jokalariei aholkua emateko: Ez berdinketa eskaintzeko, ezta berdinketa eskaera onartzeko ere.

### **Akta:**

Etxeko taldeak taldeetako zerrenda bakarra, neurketaren Akta eta planilla kopuru nahikoa izanen dituzte joko aretoan.

Kapitainek Akta osatuko dute inpreso ofizialean eta neurketa bukatzean Akta sinatuko dute.

Etxeko taldeko kapitainak datu orokorrak idatziko ditu eta gero bere taldearen datuak. Ondoren, kanpoko taldeko kapitainak 5 minutu izanen ditu bere taldearen datuak idazteko.

Aktak osorik eta behar bezala bete behar dira:

- Torneoa, maila eta txanda zenbakia.
- Neurketaren data.
- Taldeen izenak.
- Taldeetako kapitainen izen eta bi deitura.
- Taldeetako jokalaria guztien izen eta bi deitura.
- Partida bakoitzaren emaitza.
- Neurketaren emaitza, partida guztiak kontuan hartuta.

Neurketako partidak hasteko, taldeko jokalarien erdiek jarrita egon behar dute Aktan. Bestela, partida guztiak galtzen ditu eta lehian ziren partidetak bi puntu kenduko zaizkio zigor gisa.

Aktan datuak jarri arte ez dira partidak hasiko. Neurketaren hasierako unean Akta osatu ez bada, horren erantzukizuna duen taldearen erlojuak abian jarriko dira.

Talde bati, edozein arrazoiengatik, jokalaria bat edo gehiago falta bazaizkio, azkeneko mahaia edo mahaiak hutsik utzi beharko ditu. Hutsik utzitako mahai bakoitzeko puntu erdiko zigorra jasoko du (neurketan lortutako puntuen batuketari dagokionez).

Jarritako jokalaria bat ez bada agertzen, bere taldeak mahai horretatik aurrera puntu guztiak galduko ditu. Gainontzeko partidek bukaerara arte jarraituko dute eta ebaluatu egingen dira. Indar handiko arrazoia gertatu bada (istripuak, gaixotasunak, gertaera naturalak), zigor horiek ez dira aplikatzen, kapitainari ez agertzea jakinarazteko modurik izan ez bada. Aktak emateko epea amaitu baino lehen agiri bidez frogatu behar dira gertaera horiek. Irabazitako puntuak, zigor horregatik galtzen badira, beste taldearentzat ez dira izanen. Arrazoirik gabe ez agertutako jokalaria txapelketatik kanporatua izanen da.

Neurketan desadostasuna sortu duen gorabeheraren bat gertatuz gero, zaintzako epaileari galdetuko dio kapitainak eta, desadostasuna mantentzen bada, akta sina daiteke hori

agerian jarrita, erreklamazioaren gorabehera adierazita. Beharrezkoa iritiz gero, erreklamazioaren gorabehera xehe-xehe azalduko duen idazki bat aurkez daiteke Federazioan, neurketaren ondorengo laneguneko 14:00 orduak baino lehen.

Epailerik ez badago, akta eta partiden planillak emateko arduraduna etxeko taldea da. Igandeko 22:00 orduak baino lehen akta formatu elektronikoa helarazi behar dio Nafarroako Xake Federakundeari. Adibidez, akta eskaneatuta edo irakurtzeko modukoa den argazki baten bidez.

Akta paperean, planillekin batera, Federazioaren bulegoan utzi behar dira neurketaren ondorengo asteazkenerako.

Emaitzak edo dokumentazioa Torneoko zuzendariak finkatutako epe barruan aurkezten ez badira, lehenengo aldia taldea ohartarazia izanen da eta ondorengoetan jokatu ez balu bezala hartuko da, dagokion zigorrekin. Askotan errepikatuz gero, torneoaren kudeaketa baldintzatuz, taldea kanpora dezake torneoko zuzendariak, epaile nagusiarekin ados jarrita.

### **Parekaketak:**

Round Robin kasuetan, talde bakoitzaren zenbakiak zozkatuko dira. Iruñetik kanpoko egoitzak izanez gero, zozketa bideratuko da Iruñetik 30 kilometro baino gehiagora dauden egoitzetako taldeek etxean neurketa gehiago joka ditzaten kanpoan baino.

Parekaketak, emaitzak eta sailkapenak Federazioaren webgunean jarriko dira.

### **Puntuazioa:**

Taldeek izanen duten puntuazioa neurketa bakoitzeko puntuen batura izanen da (irabazitako neurketa bakoitzeko 2 puntu, berdindutako neurketa bakoitzeko puntu bat eta galdutako neurketa bakoitzeko 0 puntu).

Talde bat kanporatzen bada (ez agertzeagatik edo diziiplina arrazoiengatik), ez dira kontuan hartuko berak lortutako puntuak (zigorra jarri zen txandaren arabera beti ere).

### **Ezberdinketa sistemak:**

Azkeneko sailkapenean puntuen berdinketa horrela hautsiko da:

- 1.- Partiden puntuazioa (mahai bakoitzaren emaitzen batura, alegia).
- 2.- Berdindutako taldeen arteko emaitzak.
- 3.- Sonnenborn-Berger: Partidetan izandako puntuak eta talde arerioak neurketa guztietako partidetan lortutako puntuak kontuan hartzen dira biderkaketa egiteko, eta gero biderkaketa guztien emaitzak batzen dira.
- 4.- Sistema herbeheretarra, berdindutako taldeen artean.
- 5.- Berdindutako taldeen neurketan lehenengo mahai irabaztea (edo bigarrenen, lehenengoan berdinketa izan bada, edo hirugarrenean aurrekoetan berdinketa izan bada, eta abar).
- 6.- Lehenengo mahai beltzekin jokatu duenaren alde.

### **Erreklamazioak:**

Epailerik ez bada, zaintzako epaileak erabakiko ditu. Torneoko zuzendariak ere erabaki dezake, arazoa konpondu ez bada. Diziiplina arazoak Lehiaketa eta Kirol Diziiplina Batzordera bideratuko ditu torneoko zuzendariak.

Torneoko zuzendariaren erabakiak errekurri daitezke Txapelketen Araudi Orokorrak ezartzen dituen moduan eta epeetan.

**Taldeen mailak:**

Maila bakoitzean taldeen plazak klubarenak dira.

Taldeek izena alda dezakete, maila bakoitzeko plazaren eskubidea galdu gabe.

Eskubide hau mantentzeko txapelketa jokatu egin behar da. Bestela, plazarekiko eskubidea galduko du klubak.

Diziplina zigorrarengatik edo ez agertzeagatik talde bat kanporatuz gero, plazarekiko eskubidea galduko du eta ezin izanen du berehalakoan berreskuratu, plaza librerik geratuz gero (beste talde batek uko egiteagatik edo beste taldeek paira ditzaketan zigor edo kanporaketengatik). Klub bateko talde bat baldin bada plaza libre utzi duena, orduan ere ezin du bere lekua hartu klub bereko beste talde batek.

**Torneoko zuzendaria:**

Aritz Idiazabal Troyas.

**2024-10-07.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**